



IZARRA HERRI ESKOLA
Ugarte kalea, 3
01440 IZARRA
Tfnoa. 945-437167
Fax 945-437714
E-mail: 010048aa@hezkuntza.net

1. SARRERA

1.1 IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

Izarra Herri Eskola Izarra herrian eta Urkabustaiz udalerrian kokatuta dago. Arabako mendebaldean aurkitzen da. Ikasle guztiak ez dira Urkabustaizkoak, beste bi udalerritik etortzen dira ere: Kuartango eta Zuia. Gure ikastetxeko **ikasle** kopurua 194^{ekoa} izanik erdia gutxi gora behera garraiatua da (80 ikasle). Honek suposatzen du orain arte bost autobus erabili **izan** ohi direla eta hemendik aurrera lau. Azken urte hauetan Zuiatik etortzen den ikasle kopurua nabarmen jaitsi egin da eta une honetan 37 ikasle dira Zuiako garraiatuak. Eskolako ikasle gehien^{ek} jantoki zerbitzua erabiltzen dute. 2013-14. ikasturtean 164 ikasle jatun ohikoak dira.

Familien maila sozio-ekonomikoari dagokionez erdi maila batean kokatuko genuke. Ikasleriaren % 25a bekaduna da. Etorkinen kopurua etengabe aldatzen da baina une honetan 7 direla aipatu behar da.

Ikastetxeak D eredua bakarrik lantzen du. Familia hizkuntza nagusia gaztelania da eta familia hizkuntza euskera dutenak gutxiengoak dira.

1.2 PRINTZPIO OROKORRAK

Legeriak ondorengo printzipio orokorrak proposatzen ditu:

1.- Oinarrizko hezkuntzaren xedea gizakien ahalmenak osorik garatzea da; hau da, ahalmen fisikoak, motorrak, kognitiboak, komunikaziokoak, sozialak eta afektiboak garatzea, Haur Hezkuntzan hasitako prozesua dela jakinda. Horrekin batera, pertsona guztiek izan beharreko oinarrizko gaitasunak lantzeko xedea du, norberaren errealizazioa eta garapena lortzeko, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta enplegua sortzeko.

2.- Oinarrizko Hezkuntza eskola-komunitate guztiari zuzenduta izanda, garapen pertsonaleko, familiarreko, soziokulturaleko, akademikoko eta profesionaleko alderdiak antolatzeke asmo orientatzailea du. Oinarrizko Hezkuntzaren azken xedea ikasleen potentzialtasun osoa garatzen laguntzea da, horietako bakoitzak dituen aukera errealei erreparatuta.

3.- Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arloek eta irakasgaiek beren barneak hartuko dituzte hezkuntza-gaitasun orokorrak, hala, jakintza-arloek zein irakasgaiek ikuspegi guztietatik landuko dituzte oinarrizko gaitasun horiek. Jakintza-arlo eta irakasgaien artean izango dira Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte-eta kultura- ondare propio eta berezkoari dagozkionak.

4.- Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak izaera hezitzailea eta orientatzailea dute, eta horrek esan nahi du irakasle guztiak direla hezitzaile, eta batera eta modu koordinatuan esku hartu behar dutela, dagokien hezkuntza-etapan eta curriculum arloan. Esku-hartze hori ikasleen heziketan ardura duten figurekin lankidetzan egingo dute, batik bat familiarekin, baina baita gizarteko sozializazioko eta hezkuntza beste instantzia eta eragile batzuekin batera lan eginda ere.

5.- Eskola inklusiboaren aldeko planteamendua egiten da, eta haren oinarritzat jotzen dira ekitatea, elkartasuna eta aukera-berdintasuna; ildo horretatik, hauek lehenetsiko ditu Oinarrizko Hezkuntzak: ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratzea, ikasleen aniztasunari arreta ematea; gertatu bezain laster hautematea, eta familiekiko harremana zaintzea. Horren guztiaren helburua hezkuntza-ingurune egokia eraikitzea eta ikasteko oztopoak ezabatzea da.

6.- Ikastetxeetako bizikidetza egokia izan dadin, bake positiborako, giza eskubideetarako, justiziarako, elkartasunerako eta inklusiorako heziketa eman behar dute ikastetxeek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatu egingo du ikastetxeko proiektu osoak egin daitezen, horien xedea bake-kultura bat sortzea eta oinarritzat hartzen badituzte errespetuan, elkarrizketan eta emozioen erregulazioan eta kontrolean ardaztutako jardunbideak. Proiektu horiek, halaber, oinarri izan behar dituzte gatazken trataera etikoa eta hezkuntza- komunitateko pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak.

1.3 IKASTETXEAREN HELBURU OROKORRAK

Printzipio orokor horietan oinarriturik hauek dira gure helburu orokorrak:

Ikasleak norberaren identitatea eraikitzea, modu integral batean hezte, haien nortasuna eta haien garapen fisikoa, motorra, kognitiboa, komunikaziokoa, soziala eta afektiboa garatzeko.

Oinarritzko Hezkuntza eskola-komunitatea guztiari zuzentzea, estamentu guztien inplikazioa eta partaidetza sustatuz, garapen pertsonaleko, familiarreko, soziokulturaleko eta akademikoko alderdiak antolatzeke.

Elkarrekin bizitzen ikastea, harreman positiboak izanez eta gatazka-egoeretan, elkarriketara eta negoziatzora jotzen ikasiz. Lankidetzan eta taldeko lanean jardutea, errespetua eta elkartasun-jarrerak erakutsiz.

Ikasleen potentzialtasun osoa garatzen laguntzeko eta horietako bakoitzak dituen aukera errealei erreparatuz, eskola inklusiboaren aldeko planteamendua egitea, ekitatea, elkartasuna eta aukera-berdintasuna printzipioetan oinarrituta.

Ikasle elebidunak lortzea, euskaraz eta gaztelaraz komunikatzeko gai izan behar dira ahoz zein idatziz. Ingelesa ezagutzea ahalik eta maila onena lortuz.

2. ETAPAK

2.1. ETAPA BAKOITZAREN EZAUGARRIAK ETA XEDEAK

HAUR HEZKUNTZA:

Xedea:

Haur Hezkuntzaren **xede nagusia** haurren garapen fisikoan, afektiboan, sozialean eta intelektualean laguntzea da, familiekin lankidetzan estuan. Etapa honetan jartzen dira banakoaren garapen pertsonalerako eta sozialerako oinarriak, eta zenbait ikaskuntza osatzen dira, herritarrentzat oinarritzotzat jotzen diren gaitasunak lortzeko oinarrian dauden irakaskuntza batzuk, alegia.

Etaparen zenbait ezaugarri:

Haur Hezkuntza borondatezkoa da eta sei ikasturteko iraupena du. Sei ikasturte horiek bi ziklotan daude banatuta: lehen zikloa, zero eta hiru urte bitartekoa; eta bigarrena, hiru eta sei

urte bitartekoa. Bi sei urte bitarteko umeek dituzten eskoletan azpimultzoak honela antola daitezke: 2 eta 3 urtekoak, lehen azpizikloan eta 4 eta 5 urtekoak, bigarren zikloan.

Familiekin lankidetzan, haurren garapen osoa sustatu. Haurraren eskubideak, haren ongizate psikofisikoa eta gaitasun potentzial guztiak: afektiboak, zentzu-mugimenezkoak, kognitiboak, harremanetarakoak eta sozialak kontutan hartuta.

Hezkuntza-jardueraren hasieratik, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako elebitasuna bermatzeko baldintza egokiak sustatu eta bultzatu.

Etaparen beraren nortasun propioa eta hurrengo etaparen arteko oreka bilatu behar da.

Funtzio hezitzailea eta funtzio soziala, gurasoei, familia eta lan bizitza bateratzeko aukera errazteko.

Bi mila biztanle baina gutxiagoko landa-eremuetako biztanleei kalitatezko hezkuntza-zerbitzua eskuratzeko aukera eman.

Desberdintasunak prebenitzeko eta orekatzeko hezkuntza sustatu, bereziki gizartean edo pertsonalki egoerarik ahulenean daudenei arreta emanez eta ekitatea bilatzen saiatuz.

LEHEN HEZKUNTZA:

Xedea:

Haurraren garapen pertsonala eta ongizatea finkatzeko, hurrengo aspektuak garatzeko aukera ematea:

- Ahozko adierazpena eta ulermena
- Irakurketa eta idazketa
- Kalkuluaren inguruko oinarriko kultura-trebetasunak.
- Gizarte-trebetasunak.
- Lan-ohiturak eta ikasketa-ohiturak.
- Sen artistikoa eta sormena.
- Afektibitatea.

Antolamendu Printzipioak:

Derrigorrezkoa eta doakoa da. Bi ikasturteko hiru ziklo hartzen ditu barnean. Izaera orokorra eta barne- hartzailea duten hainbat arlotan banaturik dago.

Arloak:

Etaparen horretarako ziklo guztietan irakasten diren arloak hauek dira:

- Ingurumenaren, gizartearen eta kulturaren ezagutza.
- Arte-hezkuntza.
- Gorputz-hezkuntza.
- Gaztelania eta literatura.(1go zikloan izan ezik)
- Euskera eta literatura.
- Atzerriko hizkuntza.
- Matematika.
- Erlijioa(nahi duenarentzat) Hezkuntza Arreta (beste arloei eta erlijioari loturiko edukirik gabekoa).

Hirugarren zikloko azken ikasturtean, *Herriartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza* arloa landuko du.

Lehen Hezkuntzaren bigarren zikloa amaitzean, diagnostiko-ebaluazioa egingo zaie ikasleei. Ebaluazio hori prestakuntzazkoa eta orientatzailea izango da eta handik abiatuta ikastolako hobekuntza plana egingo da. Gainera, familiei informazioa emateko balio du.

2.2. IKASLEEN ASPEKTU PSIKOEBOLOTIBOAK

2.2.1. HAUR HEZKUNTZA:0-3 urteko haurren eboluzioaren ezaugarriak

Garapen psikomotorea

Mugimendua eragiten duen jarduerak garrantzi handia du haurtzaro goiztiarrean. Jaiotzaren unetik bertatik, haurrak mugimendu txikiak egiten dituela ikus dezakegu. Esaterako, ahoz gora dagoela burua jiratu. Haurraren ikus-eremua mugatzen duten mugimendu txiki-txikiak dira ; horregatik, ohikoa da tarte luzea **begirada irmo eta tinkoa** dagoela ikustea.

Pixkanaka pixkanaka, funtzionatzen jartzen ditu heldutasun-une aproposa hartu berri duten gorputzaren atalak. Esaterako, umea etzanda dagoela, **buruaren kontrolak** aurrera egiten du, biraketa hutsak egitetik burua erabat jasotzera pasatzen delarik.

Eskuak aurkitzen ditu: jakin-min handiz begiratzen die, eta ireki zein ixteko saioak eginez, mugikorrak direla konturatzen da. Luzatu egiten ditu objektuak hartzeko eta nahi bezala maneatzen ditu objektuak esku batetik bestera pasatzea lortzen duen arte.

Kanpo-ingurunea arakatzen ari da, etengabe, **herrestaka** edota **iraulika** dabil, eta euskarri egokia izanez gero, bertikaltasunerako bidea hartzen du. Iraulketa-mugimenduak eta herrestaka lekuz aldatzeak bertikaltasuna lortzeko aurreneko aldira daramate, hots, **katamarka** edo **katu-katuka** ibiltzera. Urtebete inguru duenean, nagusien laguntzarik gabe **esertzen** hasiko da.

Haurra inolako euskarririk gabe altxatzen da lurretik eta, arian-arian, **oin**ez ibiltzeari ekingo dio. Halaber, hasiera emango dio oratze edo euste finaren garapenari. Haurra, objektuetara errazago hurbil daiteke eta hauen manipulazioari esker, esperientzia ezberdin gehiago bizitzen ditu. Honek, bere sozietate prozesua errazten dio haurrari eta bide horretan, hizkuntza bereganatuz doa abere inguru hurbilarekin dituen interakzioei esker.

Bi urterekin, gai da eskailerak igo eta jaisteko nahiz eta hasieran laguntzarekin izan eta poliki poliki korrika eta saltoak egiten ditu. Esfinterraren geroz eta kontrol gehiago izaten du eta fardelak kentzeko prestatzen dabil. Bere eskuaren koordinazioa geroz eta zehatzagoa du. Gai da, bakarrik jateko, zirriborroak marrazteko, arropa erantzi eta janzteko.....

Garapen kognitiboa

Haurtxoa jaio egiten da, bere gorputza sentitzen du, mugimendu txikiak burutzen ditu. Gainera, setiamenen bidez, sentsazio pila jasotzen du, atsegingarria edo ez-atsegingarria izan daitekeena. Sentsazio horiei esker, umeak aurkako edo muturretako nozio polar txikiak sortzen ikasiko du, izan ere errealitatea gorputzaren luzapen giza ikusten baitu.

Hasierako jokamoldeak erreflexuen erabileran oinarritzen dira, kanpo estimuluei erantzunez sortutako jokamolde automatikoetan, alegia. Lehen hilabetea igarotakoan, erantzun horiek ondorio interesgarriak sortzeko errepikatuko dira. Haurra gai da egoera berrietara egokitzeko.

Apurka-apurka, zentzua ematen die ekintzei. Espazioarekin, objektuekin eta nagusiekin duen elkarrekintza orok izango du zergatia. Materialak modu desberdinez maneiatuz gero zer gertatzen den jakin nahirik dago. Gauza berrien aurkikuntza eta ikaskuntza **saio- errore** sistemaren bidez egiten hasten da. Halaber, lehen aldaketak sartuko ditu ordura arte ikasitako jarreretan.

Garapen kognitiboan gertatzen den eboluzio garrantzitsuena **funtzio sinbolikoaren agerpena** da, hots, objektu, ekintza, toki eta pertsonen (haurra bera barne) errepresentazio mentala.

Horren ondorioz, **jolas sinbolikoa** garatuko da. Jolas mota horretan, haurra errealtateari dagokion objektuaren beharrik gabe edozein ekintza adierazteko gai dela ikus daiteke. Adimendu matematikoari dagokionez, haurra **forma berdinak** identifikatzen hasten da bi urtetik aurrera. “Zirkulu ” edo “karratu ” izenak ezagutu ez arren , forma horiek dituzten bi txartelak erakutsiz gero, desberdinak direla konturatuko da; halere, irudi berdina duten bi txartel erakutsiz gero, biak berdinak direla ere badaki. Laster, dagokion izena emango dio bakoitzari.

Objektu **finko, iraunkor edo egonkorren eraketa** arras garatuko da. Honezkero, badaki ikus-eremuan objektuen bat egon ezean, ez duela esan nahi desagertu egin denik.

Hizkuntzaren garapena

Jaioberriari arreta berezia eman diote hurbileko soinuek. Entzute-jarrerara horren eboluzioak lengoaiaren **ulermenaren** hasiera dakar . Ulermenaren hasiera hori hitzen bereizketan baino, tonuaren bereizketan oinarritzen da.

Komunikatzeko lehen bidea **negarra** da. Hasiera batean, bide hori beharrik adierazteko ekintza erreflexua baino ez da; haatik, pixkanaka-pixkanaka negar desberdina sortzen ikasiko du, zer adierazi nahi: gosea, egarria, mina, sabelustutzea, egonezina etab.

Hilabete gutxira soinu sinple eta bokalekoak egingo ditu eta horren ostean, lehen **zizakadura**, etengabe errepikatuko duela jolasean edota ingurunearen zein objektuen aurkikuntzan dabilenean.

Zizakadura hori hobetuz joango da, harik eta lehen silabak esan arte, gutxi gora behera zazpi hilabete dituenean. Umetxoak, orain, bere eguneroko jardueretan, eztarriko hotsak eta soinu bokalekoak ez ezik, **lehen silaba** bakanak ere ahoskatuko ditu: a-ma, ai-ta etab.

Geroago, **lalazio** txikiak (lengoaiaren imitazio ez-perfektuak) eta zenbait **eskolalia** (ingurunean dituen soinuen imitazioa) sortzen hasten da. Bai lengoaiaren imitazioan, baita soinuarenean ere, hitzak edo onomatopeiak asmatzen ditu objektuak zein animaliak izendatzeko, sormen kognitiboari esker.

Modu horretara umeak lengoaia hobetuko du eta azkenean **holoesaldia** (hitz bakarreko esaldia) lortuko du. Biberioia edo edalontzia seinalatuz eta berba bakar bat- ura- esanez egarri dela adierazten du.

Jerga adierazkorrak eta holoesaldiak bidea egiten diete zentzu osoko esaldi laburrei eta hitz aintzako esaldien sorkuntzari. Orain, egarri denean haurrak ez dio irakasleari begiratuko eta “ura “ esango ; “ura nahi dut ” esango du argi eta garbi. Lengoaia telegrafikoa izenez ezagututako esaldi laburrak eratzen ditu.

Ohiko hiztegian **izenak eta edu-teko izenordainak** dira nagusi, horien artean “ni “ eta “neure” formek lehentasuna izanik.

Bigarren urtearen bukaeran asko hitz egiten du, bere erara. Hirugarren urtearen hasieran, erabiltzen duen hitz kopurua bikoiztu egiten da: dagoeneko, hitzen plurala, generoa, artikulua, izenordean, aditzen lehenaldia eta infinitiboa....erabiltzen ditu. Hitz egitea asko gustatzen zaio, nahi duena esateko gauza dela konturatzen da eta. Gurasoekin, lagunekin, irakasleekin, senideekin eta jostailuekin ere hitz egiten du (Piaget-ek jostailuekin jolastu eta hitz egiteari “joko sinbolikoa” deitzen zion)

Hiru urterekin ederki asko hitz egiten du. Zenbait hizki eta fonema oraindik ez ditu oso ongi ahoskatzen, baina bost urte bete arte normala da.

Garapen pertsonal-soziala

Umetxoarengan ikus daitekeen lehen gizartekoitasun-seinalea **irribarrea** da. Besterekin sorturiko edozein harremanen erakusgarria edo erantzuna da.

Lehen egunetik **bereizten** ditu **gurasoak** beste pertsonen artetik. Eta handik denbora laburrera zuzeneko senide hurbilak ere bai: neba-arrebak, aitona-amonak eta, bereziki, senitartekoak.

Eguneroko bizimodu ohituretara egokituko da, lehen unetik bertatik edozein aztura edo arau onartuz. Ugariak dira haurraren **ekintza-saialdiak**, baina askotan mugapenak aukerak baino gehiago direnez, amaren babesaz baliatuko da. Babes hori erdiesteko, arestian aipatutako negar-motak erabiliko ditu.

Haurrak burutzen dituen jarduerak, oro har bakarkoak izan arren, pertsona nagusiz inguraturik egotea gustatzen zaio. Gozatu egiten du jendea begira daukanean, eta behin eta berriz errepikatzen ditu nagusien txalokatutako edo goresitako ekintzak. **Banakotasun egozentrikoa** hain da gogorra, ezen bestearekiko harremana mugatu egingo baita objektu edo gauza bat lortzea.

Adin horretan garatuko ditu **benetako emozio psikologikoak**. Poztasuna eta alaitasuna, amorrua edo haserrea, antsietatea, beldurra, afektua, atsekabea eta tristura, susmoa.

Jolas paraleloa burutzen du, **taldeko monologoa** eginez: gelako ume guztiak ari dira toki berean eta une berean jolasten; hala ere, nork bere jostailuak ditu eta bere jolasari egiten dio kasu. Jolas paraleloa da, beraz, beste ume batzuen ondoan jolasten direlako; ez, ordea, beste umeekin batera ari direlako.

Gizartekoitasuna edo soziabilitatea besteak behatuz eta imitatuz garatzen du haurrak. Imitazioa famili ingurunean hasten da, bai amarekin, bai aitarekin. Ama izatera jolasten da, aita izatera jolasten da...sentsazioak ditu, eta 3 urte inguru dituenean, sexu bereko gurasoarekin identifikatzen da. Hortaz, tipifikazio sexualaren eraketa garatuko da hortik aurrera.

Jarrerazko sozializazio prozesuaren kasuan, **arauak, ohiturak eta balioak** ere ezagutzen eta barneratzen hasiko da. Musu horretan, bere portaera gero eta gehiago erregulatzen du. Hala ere, batzuetan, gizarteak eskatzen edota espero duena (ama, aita edo beste pertsona baten bitartez adierazita) eta umearen nahia bat etortzen ez direnean, amorrua sentitzen du. Hori gero eta gutxiagotan gertatuko zaio. Umearentzat bere familia eta bere talde sozialak oso garrantzitsuak dira eta izango dira, aipatutako arauak eta balioak haien bitartez jasoko dituelako.

2.2.2. HAUR HEZKUNTZA:3-6 urteko haurren eboluzioaren ezaugarriak

Psikomotrizitatearen garapena

Adin- tarte horretan, gorputz-eskema erabat finkatzen da, eta gorputz atalak identifikatu egiten ditu haurrak. Horrekin batera, haurra lateralitatea lantzen hasten da, alde bat/ beste alde bat kontzeptuen bitartez. Ikasleak, haur Hezkuntza amaitutakoan, 6 urte inguru dituztela norberaren ezkerre eta eskuina bereizten hasten dira.

Gutxi gora behera 3 urte dituztela, haurren mugimenduen koordinazioa nabarmen hobetzen da, jauzi egitean eta lasterka egitean bereziki. Pixkanaka-pixkanaka hasten dira arrapaladan ibiltzen eta oin bakar baten gainean jauzika.

3-4 adin-tartean, haurrek gorputz-eskema osatzen dute, elementuak erantsiz:

▪ Buruan	Ilea, belarriak, aurpegia eta aurpegiaren osagaiak(masailak,begiak,sudurra,ahoa,ezpainak,mihia eta hortzak) identifikatu eta bereizten ditu.
▪ Enborrean	Sabela, bizkarra eta ipurdia. Kanpoko sexu-organoak bereizten ditu, bere identitate sexuala finkatu ahala.
▪ Goiko gorputz-adarretan	Besoak, eskuak, hatzak eta azazkalak
▪ Beheko gorputz adarretan	Hankak eta oinak

4 urtetik aurrera, psikomotrizitatean egindako aurrerabidea finkatu eta zabaldu egiten da. Aldi berean, haurrak hobeto daki zer gorputz-ahalbide dituen.

Gorputz-jarrerei eta mimikari dagokienez, zehaztu eta jolas jakin baterako erabiltzen ditu. Hau da, gero eta keinu zehatzagoak erabiltzen dira ekintza bakoitzerako; keinu koordinatuak, mugimenduari xarma eta grazia emateko.

4 urteko haurrak gorputzaren ezaguera osatuko du, bere eta besteen gorputzak ikertu ahala. Gutxiago aipatzen diren beste gorputz atal batzuk aurkituko ditu: bekokia, betazalak, betileak, kokotsa, sorbalda eta gerria.

5-6 adin tartean, abiadura eta indarra areagotzen da motrizitate-trebetasunean. Haurrak bere gaitasun fisikoak xehe-xehe aztertzen ditu.

Eguneroko jolasari dagokionez, umeak psiko

motrizitate-saio luzeak egin ditzake, arau batzuk kontuan izanda (askotan umeak berak asmatutakoak).

6 urterekin gutxi gora behera, hurrek motrizitate xehea eta larria eskuratzen ditu, neurri handi batean, eskolako zereginetarako beharrezko baititu: idazmena hobetzeko; gero eta tarte luzeagoetan geldirik egoteko; ikasitako prozesuak gero eta errazago barneratzeko; arretaz jarduteko...

Horretarako ezinbestekoa da nork bere burua menderatzea; hau da, inhibizio-gaitasuna garatua izatea eta funtzio toniko malgua eta kontrolatua izatea.

Zenbat eta hobeto ezagutu bere gorputza, orduan eta motibazio handiagoa izango du haurrak, ezkerre eta eskuina gorputzean kokatzeko, eta alde bateko eta besteko gorputz atalak bereizteko (besoak, eskuak, hankak, oinak, begiak eta belarriak).

Garapen Kognitiboa

Hurrek 3-6 urte dituztela, garapen kognitiboaren eboluzioa eta deszentrazio-prozesua aldi berean gertatzen dira. Prozesu hori azaltzeko, ezkutaketaren adibidea erabiltzen da: 3 urteko haurrak begiak estaltzen ditu eskuekin, horrela inork ikusiko ez duelakoan; lau urteko haurra ezkutatu egiten da, bere bila dabilen laguna ez ikusteko moduko leku batean; azkenik, 5 urteko haurra gai da erabat ezkutatzeko.

Funtzio sinbolikoa(2-3 urte) eta jolas sinbolikoa agertzen direnean, haurrari oraindik kostatzen zaio bere jardunean errealitatea eta fantasia bereiztea. Pentsamendua garatzeko, berak sortutako "errealitate"ko ideiak erabiltzen ditu.

Zentratzea / (arreta egoera baten alderdi bakar batean jartzea) eta *atzeraezintasuna* (eragiketa batek norabide bikoitza izan dezakeela ulertzeko ezintasuna) direla eta, haurrak arrazoibide ilogikoa erabiltzen du, harentzat guztiz erreala da eta. Adibidez: arreba duen mutil bati arrebarik ote duen galdetuz gero, baietz erantzungo du berehala; aldiz, arreba horrek anaiarik ote duen galdetuta, ezetz erantzungo digu.

Horren ondorioz, haurraren arrazoibideak kausa-efektu erlazioak ezartzen ditu inongo erlazorik ez duten bi gertaera edo alderdien artean.

Apurka-apurka, haurrak, hazteaz batera, erabateko egozentrismoa baztertzen duen neurrian, identitateak eta funtzioak ulertzeko gaitasuna garatzen du: gauza batzuek, itxuraz edo tamainaz aldatu arren, gauza bera izaten jarraitzen dutela ulertzen du; eta bi gertakarien arteko oinarritzko erlazioez jabetzen da. Pentsamendu logiko-matematikoa garatzen ari dela adierazten du horrek.

Hizkuntzaren garapena

Hasieran, haurrak hizkuntza telegrafikoa erabiltzen du, eta 3 edo 4 hitzeko esaldi laburrak eratzen ditu. Hazi eta heldu ahala, hizkuntza sozializatu egiten da; hots; solasaldira eta solaskidearen jokabidera egokitzen da.

3-6 urteko haurraren hizkuntzak, nahiak adierazteaz gain, informazioa trukatzeko 8galde-erantzunekin edo gabe), eta kritikak, aginduak edo eskaerak plazaratzen ditu.

Hizkuntza sozializatzearekin batera, eboluzioak ezaugarri hauek agertzen ditu:

3 urtetik 4 urtera bitartean	4 urtetik 5 urtera bitartean	5 urtetik 6 urtera bitartean
- Haurrak esaldi telegrafikoak osatzen ditu, 3 edo 4 hitzekoak, gutxi gora behera. - 900/1.200 hitz ulertu eta erabiltzen ditu. - Izenak eta edutezko izenordainak erabiltzen ditu gehien bat. - Pixkanaka, pertsona izenordainak agertzen hasten dira (“ni” “zu” “bera”), eta zuzen erabiltzen ditu. - Pluralak eta lehenaldiko aditz-denborak erabiltzen ditu.	- 4 edo 5 hitzeko esaldiak erabiltzen ditu batzuetan, eta deklinabidea egoki erabiltzen du: <i>nori, norekin, nondik, nora, norentzat...</i> - 1.500/2.000 hitz erabiltzen ditu gutxi gora behera.	- Esaldietako hitz kopurua handitu egiten da; 6-8 hitzekoak, gutxi gora behera. - 2.000/2.500 hitz erabiltzen ditu. - 6 urterekin gutxi gora behera, haurra gai da hitz batzuk definitzeko eta antonimo batzuk emateko. Gramatika badakiela esan daiteke, oraindik arauen salbuespenen berri izan ez arren.

Garapen pertsonal-soziala

3- 6 urteko umea egozentrikoa da, eta guztia bere inguruan biratzen dela uste du. Aldi berean, aniztasunaren kontzientzia hartzen hasten da , eta bere burua onartzen eta aintzat hartzen.

Pertsona helduek erabateko eragina dute banakotzako prozesuan. Haurrak haiengandik jasotzen du informazioa norberaren ahalbide eta mugei buruz, eta gizartean bizitzeko oinarritzko jokabide-arauak barneratzen ditu.

Helduen oniritzia duten edo ez, ekintzak *onak* edo *txarrak* izango dira haurrarentzat. Helduek atsegin dituzten portaerak bereganatzen ditu, gaitzespena saihesteko eta sariak lortzeko asmoz.

Adimenaren garapenean aurrera egin eta komunikazio-baliabide gehiago eskuratu ahala, harremanak estutzen dira beste neska-mutilekin. 3-6 urteko haurren soziabilitatea “alde bakarreko laguntza” deritzon kontzeptuan oinarritzen da; hots, soilik norberaren asmoetara makurtzen dena izango da lagun ona.

Ondorengo taulak 3-6 urteko haurren eboluzioaren ezaugarriak (aurreko orrialdeetan xehe azalduak) laburbiltzen ditu.

3 urtetik 6 urtera bitartean, haurrek beren buruari buruzko irudi positibo eta orekatua osatzen dute pixkanaka-pixkanaka, eta autonomiaz jokatzeko laguntzen dieten oinarritzko portaerak berenganatzen dituzte.

Gainera, ikaskuntzen bitartez, hainbat komunikazio molde lantzen dituzte, eta inguruaren ezaugarri fisiko eta sozialei erreparatzen diete.

Hori guztia lortzeko, ezinbestekoa da giro egoki eta atsegina sortzea, haurrek beren ahalbideak garatu eta eskaintako baliabide eta ikaskuntza guztiak gogo onez onar ditzaten. Gainera, giro horrek gogobete egin behar du ikaslearen jakin-nahia.

Ikas-prozesuan, Haur Hezkuntzako haurren eboluzioa orekatua eta integrala da:

- Norberaren gorputza ezagutu eta kontrolatzen dute, eta ohartzen dira zer ahalbide eta muga dituzten.
- Gero eta autonomia handiagoa ageri dute ohiko jardueretan
- Inguru naturala, familia eta gizartea aztertzen dituzte.
- Besteekin harremanetan jartzen dira, hainbat adierazpide eta komunikazio modu erabiliz eta elkarrekin bizi izanez.
- Lehen urratsak egiten dituzte irakurketan, idazketan eta oinarritzko zenbaki trebetasunetan.

Horretarako, hala ere, ezinbestekoa da pedagogia-taldeen eta gurasoen edo tutoreen arteko koordinazioa. Eginkizun horrek ezaugarri hauek izan behar ditu:

1. Eskolaren eta familiaren arteko lankidetzak.

Beharrezkoa da eskolako aldi osoan, eta funtsezkoa Haur Hezkuntzan. Bi dira familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren xedeak : alde batetik, haurraren premiei erantzutea, bestetik, autonomiaz jokatzeko ohiturak eskuratzen laguntzea.

2. Koordinazioa hezkuntzako beste etapekin.

Haur Hezkuntza berezko izaera duen etapa da. Etapa bakoitzak bere helburuak, edukiak(kontzeptuak, prozedurak eta balioak) eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako metodologia-ildo nagusiak ditu.

Nolanahi ere, ezinbestekoa da Haur Hezkuntzako bi zikloak eta gainerako etapak koordinatzea, ikasle bakoitzaren ikas-prozesuko premiak eta zailtasunak hautemateko eta zehazteko, hurrengo mailetan banaka landu ahal izateko.

3. Gizarte-eginkizuna eta hezkuntza-eginkizuna.

Haur Hezkuntzak eginkizun bikoitza du: gizartearen ikuspegitik, familia-inguruari laguntzea; eta hezkuntzaren ikuspegitik, ikasleen gaitasunak ahalik eta gehien garatzea (etaparen helburuetatik eta edukietatik abiatuta).

Horiek guzti horiek kontuan izanda, hiru dira Haur Hezkuntzaren xede nagusiak:

- *Gaitasunak ahalik eta gehien garatzea eta sustatzea, beti ere ikasleen aniztasuna eta ahalbideak kontuan izanda*
- *Kultura eta gizarte desberdinak ulertzea.*
Haur bakoitzak bere esperientzia eta bizipenak izaten ditu etxean. Horiek, ikasle bakoitzaren ezaugarriekin batera, banakako gaitasunak baldintzatzen dituzte.
- *Derrigorrezko eskolarako egoki prestatzea.*
Ikasleari kultura-ezaguerak eskuratzeko modua (hau da, komunikatzeko eta errealitatea adierazteko bideak) eskaintzea da xedea, kulturari zentzu osoa emanik haren baliagarritasuna azalazteko.

2.2.3. LEHEN HEZKUNTZA:6-12 urteko haurren eboluzioaren ezaugarriak

Hona hemen etapa honetako ikasleek agertzen dituzten eta irakasleen esku-hartzerako erabakigarriak diren berezitasunik aipagarrienak:

Afektibitatearen garapena

Lehen Zikloa

- a) Emozioen kontrola(pizgarria/ arrazoia) hobetu eta sentimenduak garatu egiten dituzte.
- b) Oraindik ere, erreferente esanguratsuenekiko (guraso, irakasle eta abarrekiko) menpetasuna dute.

Bigarren Zikloa

- a) Emozioen kontrola egonkortu eta sentimenduak finkatu eta hobetu egiten dituzte.
- b) Erreferente esanguratsuenekiko independentzia hasten da, autonomiarantz.

Hirugarren Zikloa

- a) Nolabaiteko heldutasuna hartzen dute, emozioen kontrolari eta sentimenduei dagokienez.
- b)Erreferente esanguratsuenekiko burutu eta, zikloaren amaieran, benetako autonomia hasten dute.

Garapen psikomotorea

Lehen Zikloa

- a)Gorputzaren eskema finkatu egiten dute: tonua, erlaxazioa eta arnasketa.
- b)Mugimenezko oinarritzko jokabideak- jarrera, oreka eta koordinazioa- kontrolatu egiten dituzte.
- c) Jokabide neuromotoreak finkatu egiten dituzte: lateralitatea, paratonia eta sintzinesiak.
- d) Jokabide pertzeptomotoreak menperatu egiten dituzte: espazioaren egituraketa, denboraren egituraketa eta erritmoa.
- e) Psikomotrizitate larria eta xehea ezagutu eta menperatu egiten dituzte.

Aldagai horiek guztiak funtsezkoak dira ikaskuntza eraginkorra izan dadin irakurketan eta idazketan ezinbestekoa den heldutasuna finkatzeko.

Bigarren Zikloa

- a) Gorputzaren eskema ezagutu eta menperatu egiten dute.
- b) Mugimenezko oinarritzko jokabideak ezagutu eta menperatu egiten dituzte.
- c) Jokabide neuromotoreak ezagutu eta menperatu egiten dituzte.
- d) Jokabide pertzeptomotoreak ezagutu eta menperatu egiten dituzte.
- e) Psikomotrizitate larria eta xehea ezagutu eta menperatu egiten dituzte.

Psikomotrizitatea menperatzeak nabarmenki hobetuko ditu hizkera bakoitzaren- batez ere idatzizkoaren- ulerkuntza eta adierazpena.

Hirugarren Zikloa

- a) Motrizitate larria eta xehea espazioan eta denboran ezagutzeko eta menperatzeko heldutasun handiagoa dute.
- b) Psikomotrizitate larria eta xehea espazioan eta denboran ezagutzeko eta menperatzeko heldutasun handiagoa dute(gorputzaren eskemarekin loturiko jokabideak, mugimenezko oinarritzko jokabideak, jokabide neuromotoreak, jokabide pertzeptomotoreak eta mugimenduekin loturiko jokabideak: bizkortasuna, zalutasuna, doitasuna, indarra, jarkikortasuna, abiadura eta abar).

Aurrerapen horiek norberaren mugimen- psikomotrizitate, adierazpen eta jolas-ahalbideak aztertze eta horietaz jabetzeko aukera ematen dute. Finean, apurka-apurka euren gorputzaz ohartu eta ondo zaintzeko eta armoniaz garatzeko egin beharrekoak hartuko dituzte kontuan.

Garapen kognitiboa

Lehen Zikloa

1. Eragiketa zehatzen garapen intelektuala gertatzen den eboluzio eta heltze aldian daude. Gauzak, hizkuntza eta abar manipulatzeko eskatzen du horrek, kontzeptuak eta kategoriak eratze, oraindik oso oinarritzkoak badira ere.
2. Adimen praktiko-intuitibotik adimen operatibora igarotzen dira (eragiketen aniztasuna eta antolakuntza); eguneroko esperientzia pertsonalaren bidez ezagutzen dute, eta logikarantz eboluzionatzen dute, pixkanaka.
3. Errealitatea euren pertsonaren eta jardueraren inguruan birarazten dute.
4. kode konbentzionalak ikasteko eta horietan sartzeko aukera ematen dieten ikurrak eta zeinuak hautematen eta maneiatzen dituzte.
5. Pentsaera sinkretiko eta analogikoa darabiltzate, elementuak justaposizioz erlazionatuz, errealitatea modu globalean hautemanez, analisirik eta ondorioztapenik gabeko analogiak ezarriz eta modu induktibo eta intuitiboan jokatzuz.
6. Kausazko pentsaera hartzen dute apurka-apurka, eta horrek erraztu egiten die gertaerei buruzko benetako azalpena aurkitzea, subjektibismoa eta egozentrismoa baztertzeko aukera emanez eta niaren eta errealitatearen arteko muga ezarriz.
7. Jakin-min intelektual handia eta gauzen zergatiarekiko interesa erakusten dituzte.
8. Errepikapena, antolaketa, idatzizko hizkeraren estrategiak (heldutasuna), ikasketa, arreta eta oroimena darabiltzate.
9. Aurrerapausoak ematen dituzte gertaeren ezagutzan (deklaratzailea) eta prozesuen ezagutzan (prozesuala).
10. Zenbakia eta eragiketak kontzeptualizatu egiten dituzte.
11. Sailkapenak eta serieak egiten dituzte.
12. Deszentrazioa, itzulgarritasuna eta kontserbazioa hasi eta garatu egiten dituzte.
13. Aritmetika, logika eta fisikako eragiketak (materia, pisua eta bolumena) eta espazio(topologikoak, proiektiboak eta euklidearrak), denbora eta mugimenduekin loturikoak hasi eta garatu egiten dituzte.
14. Metakognizioa hasi eta garatu egiten dituzte.
15. Apurka-apurka behatzeko gaitasuna garatzen dute.

16. Gauzaren iraunkortasunaz, ezaugarriez eta beraren aldaketen garrantziaz jabetu egiten dira eta, horrela, are errazagoa da fisika eta matematika arloetako nozioekin eta transformazio-prozesu zikloekin lan egitea.
17. Euren pentsaera adierazteko gaitasuna hobetu eta espazioaren eta denboraren ikusmoldea zabaltu egiten dute, oraindik oso modu oinarritzkoan bada ere.
18. Hizkuntza funtzionaltasunez garatzeak egituratu egiten du pentsamendua.

Bigarren Zikloa

1. Adimenaren garapenaren eboluzioari eta heltze-prozesuari dagokienez, lehengo etapa berean daude, baina manipulazioa gero eta gutxiago behar dute kontzeptuak osatzeko eta kontzeptuen kategoriak eratzeke, eta gero eta maila handiagoa nabari zaie horretan.
2. Adimena gero eta eraginkorragoa eta logikoagoa da.
3. Apurka-apurka, errealitatea gero eta objektiboagoa da.
4. Kode konbentzionalak ikurrak eta zeinuak **iaiotasunez** erabiltzen dituzte, eta horrek erraztu egiten ditu irudikatze gaitasuna, idatzizko hizkeraren ikaskuntza, zenbakikuntza, espazioaren adierazpena, adierazpen grafikoa eta irudiaren irakurketa.
5. Justaposizio bidezko azalpenenetik (hau da, osotasuna lotura koherenterik gabeko zatitan antolatu eta azaltzetik) logikara igarotzen dira (gizarteak prestatutako eta helduengandik jasotako kategorien bidez).
6. Introspektzio gaitasuna areagotu egiten da eta, horrela, pentsamendua gero eta kausalagoa da, eta analitikoagoa eta deduktiboagoa izaten hasten da.
7. Aldaketa kualitatibo handia jazotzen zaie errealitatea antolatzeke moduan.
8. Jakin-min intelektual handiagoa erakusten dute.
9. Kontserbazio nozioa finkatu egiten dute.
10. Mundu fisikoko egoeretan eta fenomenoetan gertatzen diren aldaketez konturatu egiten dira eta horiek deskribatzeko eta alderatzeko gai dira, ezberdintasun eta antzekotasunetan oinarrituriko erlazioak eratuz.
11. Gertaera eta fenomeno fisikoen eta psikologikoen arteko aldea finkatu egiten dute.
12. Erabiltzen dituzten materialen ezaugarriak aztertu egiten dituzte.
13. Hizkuntzaren estrategiak, ikasketa, arreta eta oroimen ulerkorra gero eta hobeto erabiltzen dituzte.
14. Ezagutza nabarmenki hobetzen dute, eta gero eta hobeto darabilte.
15. Metakognizioa euren jardueraren autorregulazioaren bidez garatzen dute.
16. hizkuntza-gaitasuna areagotu, ama-hizkuntza finkatu eta bigarren hizkuntza ikasteko aukera erraztu egiten da.

Orokorrean, aurreko zikloan bereganatutakoa finkatu eta hurrengo ziklorako oinarritzkoak izango diren garapen berriak sustatu egiten dira. Izan ere, hurrengo zikloan, burutu egingo da eragiketa formalak sartu eta autonomia pertsonalera daraman eragiketa zehatzen aldia.

Hirugarren Zikloa

1. Eragiketa zehatzen eboluzio eta heltze aldia burutu egiten da, eta eragiketa formalen aldian sartzen dira apurka-apurka. Horrek erraztu egiten du gauza zehatzen eta errealean mundutik gauza abstraktu eta gertakarien mundura igarotzea, eta aukera ematen du norberaren esperientzian oinarrituriko esanahia duten abstrakzioak egiteko, gauzen ezaugarriak bakartzeko eta, ezaugarri, berezitasun eta propietateetan oinarriturik, gauzen arteko erlazioak eratzeke gaitasunak garatzeko.
2. Heldutasun logiko eta operatiboa lortu eta heldutasun espekulatiboan sartzen dira; horrek gero eta ezagutza landuagoa (zientifikoa) eratzeke aukera ematen du, esperientzian oinarritutako ezagutzaz gain.

3. Errealitatearen pertzepzio objektibo, instrumental eta espekulatiboa lortu eta jakin-min intelektuala, behatzeko gaitasuna, esku hartzeko prozesuen kontrola, azalpen zehatzekiko interesa, emaitzak interpretatzeko eta orokortzeko ahalmena eta abar garatu egiten dituzte.
4. Ikurak eta zeinuak menperatu egiten dituzte; horrela areagotu egiten dira ikaskuntza sistematikoa garatzeko(idazketa eta irakurketa, zenbakikuntza-sistemak, musika-hizkera, espazioa adierazteko kodeak...) eta erabiltzeko aukerak (informazio berriak bilatu eta prestatzea, dagoeneko badituztenak berregituratzea, informaziook ondorioekin erlazionatzea eta euren buruari eta inguruan daukagun munduari buruzko ezagutza eraikitzea).
5. Gauzak eta fenomenoak (kopurua, luzera, distantzia, pisua, bolumena, mugimendua...)hautemateko eta bereizteko gaitasunak garatzen dituzte; horrek errealitateaz eta gauzen egonkortasunaz, ezaugarriez eta aldaketez konturatzea eta kontzientzia hartzea dakar, bai eta nozio fisiko eta matematiko ugari eraikitzea eta transformazio-prozesuak eta erregulartasun eta zikloen funtzionamendua8urarena, landareena...9 ulertzea ere.

Finean, etapa amaitzerako, bereganatuta izango dute euren burua ondo ezagutzako beharrezkoak diren gaitasunen heldutasuna, hori funtsezkoa da inguruan daukagun mundua ondo ezagutzeko eta, ikaskuntza-prozesuko autonomiaren bitartez, autonomia intelektuala, moralak eta sozialak errazago eratzeko.

Nortasun Garapena

Lehen Zikloa

1. Autokontzeptua, auto-estimua eta eraginkortasuna finkatu egiten dituzte, apurka-apurka.
2. Besteen estimua hobetu eta egonkortu egiten dute.
3. Izaera zehaztu egiten da.
4. Sexualitatea sor dute.
5. Eskolara moldatzen ari dira, pixkanaka- pixkanaka.

Apurka –apurka eraikitzen dute euren nortasuna, euren buruaz, euren estimuaz eta besteenaz ohartzen diren neurrian.

Bigarren Zikloa

1. Identitatea finkatu eta aurreko zikloko ezaugarriak- autokontzeptua, auto-estimua. Eraginkortasuna eta besteen estimua- egonkortu eta hobetu egiten dituzte.
2. Izaera erregulatu egiten dute.
3. Sexualitatearen sortasunari eutsi egiten zaio.
4. Ahaleginak egiteko eta pozteko gaitasun handia garatzen dute.

Euren aukerak areagotu egiten dira, autokontzeptua, auto-estimua, eraginkortasuna eta izaera finkatu eta hobetu ahala.

Hirugarren Zikloa

1. Identitatea finkatu, euren gaitasunak eta mugak eta besteenak onartu eta autokontzeptua, auto-estimua eta eraginkortasuna sendotu egiten dituzte.
2. Euren izaera eta bulkadak menperatu egiten dituzte.
3. Pubertaroa hasten da, eta, beraz, bigarren mailako sexu-ezaugarriak umotu eta sexu-heldutasuna burutu egiten da.

Orokorrean, euren identitatea finkatu egiten dute, eta autonomia pertsonala hasten da (ikastekoa, intelektuala, morala eta soziala).

Gizarte Garapena

Lehen Zikloa

1. Pertsonen ezagutza (besteen ezaugarriekiko interesa) eta harremanak (ni komunitarioa lagunak) sakonagoak egiten dira.
2. Arrazoibide eta portaera moral dibertsifikatuak agertzen dituzte.
3. Sozializazio-prozesua finkatu eta zabaltzen egiten dute: harremanak dituzte besteekin, arauak bete egiten dituzte; hitz egin, entzun eta parte hartzen dute.
4. Jokabide autonomo batzuk hasten dira, heteronomiaren barruan, betiere.
5. Jolasaren bidez, anomiatik heteronomiara igarotzen dira.

Aurreko etapako berezko norberekieratik besteen ezagutzara, onarpenera eta beraiekiko harremanetara igarotzen dira.

Bigarren Zikloa

1. Lankidetzaren eta parte-hartzearekiko interesa erakusten dute.
2. Besteen ikuspuntua onartzeko gaitasuna garatzen dute (egozentrismoa murriztu egiten da).
3. Interes komunak aurkitzen dituzte, eta besteekiko harremanak sakondu, arauak bete eta besteekin batera hartzen dituzte erabakiak.
4. Gero eta autonomia handiagoa bereganatzen dute, pixkana-pixkanaka.
5. Familiarteko esparrutik kanpo beste giro sozial batzuetan integratzen dira, apurka-apurka.
6. Berdinkideen taldeak garrantzi handia hartzen du umeentzat.

Interes komunean oinarriturik, besteekiko harremanak areagotu egiten dituzte, eta laguntasunezko harreman sakonak eratzen dituzte.

Hirugarren Zikloa

1. Berdinkideen arteko elkarrekintza eta taldeko elkarbizitza areagotu egiten da: lagunduz, parte hartuz eta laguntasunezko lotura eta iritzien sistemak berenganatu eta jarrera positiboak garatzen dituzte.
2. Berdinkideen taldeak goreneko garrantzia hartzen du.

Orokorrean, heteronomiaren aldia amaitu egiten da, autonomia pertsonala eta soziala hasteko eta eraikitzeko funtsezkoak diren berdinkide taldearen laguntza ordainezinari eta jolasari esker.

Laburbilduz, honako hauek dira Lehen Hezkuntzako hiru zikloen ezaugarriak:

Lehen zikloa (6-8 urte)

→ Derrigorrezko eskolaldia hasten da.

→Arreta egin behar zaie ikasleen jatorri ezberdinei, aurretiazko ezagutzei dagokienez.
→Ikasleek, oraindik ere, menpetasun handia dute irakasleekiko eta familiarekiko, bai afektibitateari bai lanaren garapenari dagokienez.

Ezaugarri Aipagarrienak:

→Oinarrizko trebetasun instrumentalak bereganatzen hasten dira.
→Trebetasun horiek gaitasun eta ezagutza kultural batzuk ikasteko erabiltzen dituzte.

Bigarren Zikloa (8-10 urte)

→Ikasleek gero eta gaitasun handiagoa erakusten dute errealitatearen alderdi zehatzagoz arduratzeko, eta horrek erraztu egiten du lantzen diren jakintza arloak zabaltzeko aukera.
→Talde-lanak gero eta garrantzi handiagoa hartzen du, eta banakako lana gero eta autonomia izaten hasten da.
→Irakasleekiko menpetasun afektiboa gero eta txikiagoa da.

Ezaugarri Aipagarrienak:

→Aurreko zikloan bereganatzen hasi ziren trebetasunak finkatu egiten dira.
→Ingurua errazago ezagutzeko eta menperatzeko aukera emango dieten lan-teknika eta estrategia berriak ikasten hasten dira.

Hirugarren zikloa (10-12)

→Ikasleen interesak errealitate hurbilenetik harago zabaltzeko eta jakin-mina beste errealitate batzuetarantz garatzen da.
→Irakasleekiko behar besteko autonomia hartzen dute.
→Talde-lanetan parte hartzean, hainbat ikuspuntu kontuan hartzeko eta integratzeko gaitasuna agertzen dute.

Ezaugarri Nagusiak:

→Oinarrizko trebetasunak hobetu egiten dituzte.
→Gero eta konplexutasun intelektual handiagoko lanak planteatzeko gai dira.
→Lan intelektualerako teknikak menperatu egiten dituzte.

2.2. HEZKUNTZA- GAITASUN OROKORRAK

Hezkuntza osorako nahiz oinarritzko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira hezkuntza-gaitasun orokorrak, eta hezkuntza –testuinguru guztietan ikasten dira, bai formaletan bai informaletan. Hezkuntza gaitasun orokorrak komunak dira Oinarritzko Hezkuntzako jakintza-arlo eta irakasgai guztietan, eta lortu nahi diren xedeen eta arlo eta irakasgai guztien arteko lotura-elementuak edo bitartekariak dira; hala, hezkuntza gaitasun orokorren bidez, jakintza-arloek zein irakasgaiek handitu egiten dute hezkuntza-planteamendu oso baterako eta oinarritzko gaitasunak eskuratzeko egiten duten ekarpena. Hauek dira hezkuntza oso baterako ardatz erreferentzialak, maila pertsonalean, familiarrean, soziokulturalean, akademikoan eta profesionalean:

1. **Arduraz eta autonomiaz** bizitzen ikastea , eta, zehazki, nork bere burua ezagutzen ikastea, norberaren buru-osasuna eta osasun fisikoa zaintzen ikastea eta ohitura osasuntsuak hartzea, seguru sentitzeko. Izadiak eta natura-baliabideez arduraz gozatzen ikastea, gizadi osoaren eta egungo nahiz geroako belaunaldien ondarea diren aldetik.
2. Irizpide kritikoz **ikasten eta pentsatzen ikastea**, eta zehazki, askotariko informazio-iturrietatik (batik bat, komunikabideetatik) jasotako informazioa interpretatzea, sortzea eta ebaluatzea. Erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen ikastea, ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta **ikasteko estrategiak** eskuratzeko, eta jakintza zientifikoko eta matematikoko metodoak aplikatzen ikastea, jakintza teorikoaren eta praktikokoaren alorrek planteatzen dituzten arazoak identifikatzeko eta konpontzeko.
3. **Bi hizkuntza** ofizialetan, eta gutxienez, atzerri-hizkuntza batean hitz egitean ikastea, eta berariaz, komunikabideak eta informazioko eta komunikazioko teknologiak irizpidez kritikoz erabiltzen eta interpretatzen ikastea. Irizpide hori bera jarraitu behar dute ikasleek hizkuntza artistikoarekin, musika-adierazpenarekin eta gorputzaren, plastikaren eta ikusizko alorraren adierazpenekin.
4. **Elkarrekin bizitzen ikastea**, eta, berariaz, harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarrizketara eta negoziatziora jotzen ikastea. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzea.
5. **Pertsona gisa garatzen ikastea**, norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea. Pertsona autonomia izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea.
6. **Egiten eta ekiten ikastea**, erabakiak eta ardurak hartzeko ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak gainditzeko ahalegina balioestea, eta ekintzailea izatea, bizitzaren arlo guztietan.

2.3 HELBURUAK IKASTETXERA EGOKITUTA

2.3.1. HAUR HEZKUNTZA

1.-Arduraz bizitzen ikastea	• Bere gorputza ezagutzea desberdintasunak errespetatuz gorputzak ematen dituen aukerak erabiltzeko. • Ingurua (familia, natura, gizartea etab.) ezagutu eta aztertzea interesa azalduz, inguruko gizarte eta kultura jardueretan modu aktiboan, apurka-apurka, parte hartzeko
2.- Ikasten eta pentsatzen ikastea	• Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hastea, mugimendua, keinuak, eta erritmoa landuz inguruan duen mundua ulertu eta interpretatzeko.

3.- Komunikatzen ikastea.	- Ahozko, gorputz, ikusmen artistiko espresio-bideak erabiltzea sentsibiltate estetiko, sormena eta artelan eta adierazpenez gozatuz egoera komunikatibo desberdinetan komunikatzeko. - Euskaraz ahozko mezuak ulertu eta ematea, euskaraz bizi, testuinguru desberdinetan komunikatzeko
4.- Elkarrekin bizitzen ikastea.	Ingurukoekin harremana izatea bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarrizko arauak barneratuz gatazkak modu baketsuan ebazteko.
5.-Ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea.	- Autonomia handiagoa hartzea ohiko jarduerak landuz bere buruarekiko konfiantza eta ekimena lantzeko - Bere buruaren irudi positiboa eta benetakoa eratzea bere gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzeko norbera nolakoa den onartuz.
6.- Egiten eta ekiten ikastea.	Norberak duen ezagupena eta baliabide materialak nahiz besteen laguntza erabiltzea, eguneroko egoerak antzeman eta planteatuz arazoak modu sortzaile eta autonomoan konpontzeko.

2.3.2. LEHEN HEZKUNTZA

<i>1.- Arduraz bizitzen ikastea</i>	• Giza gorputzaren eta sexualitatearen funtzionamenduaren alderdi batzuk ezagutzea, ulertzea eta onartzea, eta norberaren eta gainerako pertsonen gorputzarekin lotutako ekintza eta erabaki pertsonalek norberaren eta giza taldeen osasunean dituzten ondorioez jabetzea. Gorputza zaintzeak eta osasuntsu mantentzeak, ariketa fisikoa egiteak eta elikadura orekatu bat eramateak bizitza pertsonalari eta sozialari dakarzkion onurak garatzea, finkatzea eta balioestea. • Ingurune naturala balioestea eta hura arduraz gozatzea. Izadiaren funtzionamenduaren oinarritzko mekanismoak aztertzea, giza jarduerak izadian duten eragina ulertzea, eta hura babesten, zaintzen eta hobetzen laguntzea, gizakien eta gizakien hurbileko animalien bizi- kalitatearen nolakotasuna baldintzatzen duen elementua den aldetik. • Kosmoseko eta lurreko partaidetzat identifikatzea eta izaki bizidun eta giza espeziaren kideztat hartzea nork bere burua. Horren xedea da norberaren izaera eta gizaki guztien izaera komuna ulertzea eta ekosistema osasungarri bai eusteko ardura hartzea.
<i>2.- Ikasten eta pentsatzen ikastea</i>	• Modu koherentean eta kritikoan pentsatzen ikasteko aurrera pausoak ematea, eta ohiturak hartzea diziplina, esfortzua, erantzukizuna eta lan eta ikasketa indibidualerako eta taldekakorako teknikak lantzeko, hala, ikasketarekin lotutako eginkizunak eraginkortasunez egiteko eta norberaren garapenerako bitartekoak eskuratzeko. Horrek guztiak bultzatu egin behar du nork bere buruan konfiantza izatea eta ikaslearen sen kritikoa, ekimena, jakin-mina, interesa eta sormena. • Problema zientifikoak eta matematiko errazak identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, kalkulu-eragiketez, geometriari buruzko jakintzaz eta zenbatespenez baliatuta, eta azken horiek eguneroko bizitzan aplikatzeko gai izatea. Problema sormenez eta autonomiaz ebazteko , eskura dituen jakintzat eta baliabide materialak erabili behar ditu ikasleak; esaterako, beste pertsona batzuen lankidetzat edo laguntza. • Zientziaren eta teknologiaren garapena, aplikazioak eta haien inguru fisikoan eta sozialean zer eragin duten jakitea eta balioestea, metodo zientifikoak aplikatuz eta baliabide teknologikoak erabiliz, eguneroko problemak identifikatzeko eta ebazteko.

3.- komunikatzen ikastea	• Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko eta gaztelaniazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeke, errealitatea interpretatzeko eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea. Hizkuntzetarako Europako Marko Komune B1 maila izango da esparru horretako erreferentzia. • Zuzen, egoki eta oinarrizko autonomiaz ulertzea eta adieraztea ingeleseko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeke, eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Hizkuntzetarako Europako Marko komune A1-A2 maila izango da esparru horretako erreferentzia. • Ikaslearen bizi-inguruneke errealitate soziolinguistikoaz ohartaraztea. Hizkuntzen aniztasuna errespetatzea eta aniztasun hori herrien eta gizabanakoen aberastasun eta eskubidetzat hartzea, interesa eta errespetuzko jarrerak izateko eskubide horren erabilerarekiko eta hizkuntza- normalizazioko prozesuekiko. • Informazioko teknologiak eta komunikabideak erabiltzea ikasteko eta jakintza berriak eskuratzeko prozesuan, betiere, hartutako eta sortutako mezuekiko ikuspegi kritikoa izanda. • Arte-sorkuntza sentitzea, ezagutzea eta balioestea, eta adierazpenez eta obrez gozatzeko ahalmena, sentikortasun estetiko eta sormena garatzea, eta arte-hizkuntzak erabiltzea gauzak adierazteko eta komunikatzeko. • Hitzeko hizkuntza eta arte, matematika eta zientzia-hizkuntzak interpretatzea eta modu aktiboan eta kritikoa erabiltzea, komunikazio-ekintza zehatzak egiteko, azalpenak eta arrazoiak emateko, eta norberaren , gizartearen eta izadiaren errealitatea egoki irudikatzeko.
---------------------------------	---

4.- Elkarrekin bizitzen ikastea	• Talde-jarduerak planifikatzen eta egiten laguntzea, eta berariaz, bizikidetza-arauak eta demokratikoki ezartzen diren gainerako arauak ezagutzea eta betetzea, norberaren helburuak eta interesak taldeko gainerako kideenekin uztartuz, norberarenak ez diren ikuspegiak errespetatuz, elkarriketa landuz eta norberari dagozkion ardurak hartuz. Hori guztia giza eskubideak errespetatuz egin behar dute ikasleek, herritar aktiboa izateko prestatuz. • Auziak prebenitzeko eta haiek modu baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea, esaterako, entzute aktiboa, enpatia, asertibitatea, emozioen ezagutza eta erregulazioa, eta negoziazioa eta bitartekaritza. Horien xedea ikasleak lankide-giroko testuinguru batean bizitzea da, hala nola eskolan, familian, etxean eta ikasleak bizikide dituen gizarte-taldeetan. • Ikasleak arduraz onartzea bere betebeharrak eta zer eskubide dituen jakitea eta horiek erabiltzea, gainerako pertsonak errespetatuz. Ez onartzea jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik eta bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatik egiten diren diskriminazioak. Tolerante izatea eta lankidetza, elkartasun eta errespetuzko jarrerak izatea pertsonetikiko eta taldeetikiko. • Gizarteko arauak eta ohiturak betetzea pertsonekin harremanak izatean eta gizarte-jardueretan parte hartzean; besteak beste, bide-hezkuntzako arauak eta nork bere burua babesteko hezkuntzari dagozkionak. Errespetuzko jarrerak izatea, trafiko-istripuak eta bestelako istripuak prebenitzeko. • Sexuen arteko diferentziak eta pertsona guztien arteko eskubide eta aukera berdintasuna balioestea eta errespetatzea, eta, horrekin batera, gizonak nahiz emakumeak diskriminatzea eragin dezaketen estereotipoak baztertzea. • Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberak berezko eta erreferentziazko dituen; hala, ikasleak, identitate anizkunei erreparatuta, nortasun propio bat eraiki behar du, modu inklusiboan. Horrek guztiak erreferentziazko marko komun bat eraikitze bide eman behar du, pertsonen arteko diferentziak errespetatu eta bizikidetza erraztuko duena. • Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarritzko alderdiak eta arte eta kultura-ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea. Eta xede horiek betetzea inguruko kultura eta gizarteetikiko. Kultura eta sozietateen funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik bat, herritarren eskubideei eta betebeharre dagozkienak, haiek ikuspegi kritiko aintzat hartzeko eta haiek iritzi eta irizpide pertsonalak izateko.
--	---

5.- Ikaslearen giza alderdiak garatzen	• Bizi- ibilbidea gainerako pertsonekin batera eraikitzen duen subjeto autonomo izatera bideratzea eta pertsonen ekintzak irizpide eta balio ezberdinei jarraituz egiten dituztela jakitea. Kritikoa eta arduratsua izatea norberaren buruarekin eta gainerako pertsonekin , norberaren garapen osoa, gizartearen garapena eta izadiarekiko oreka lortzeko. • Auto-estimua eta gaitasun emozionalak lantzea eta horiek adieraztea nortasunaren esparru guztietan eta gainerako pertsonetikiko harremanetan; betiere, indarkeria eta aurreiritziak alde batera utzita. • Ikasleak modu egokian ikustea bere burua eta bere ezaugarriak eta aukerak, jarduerak autonomiaz eta orekaz egitea, eta balioa ematea helburuak lortzeko esfortzuari eta zailtasunak gainditzen joateari.
6.-Egiten eta ekiten	• Izaera ekintzailea garatzeko lehenengo pausuak ematea, norberarenganako konfiantza-jarreraren, partaidetzaren, sen kritikoaren eta ekimen pertsonalaren bidez , eta konpromisoa hartzea plangintzak egitea eta erabakiak nahiz ardurak hartzea eskatzen duten proiektuekin. • Norberaren jarrerak identifikatzea eta ikasteko nahiz lan egiteko aukeren alderdi onak eta txarrak balioestea, norberaren burua ezagutzeko, ikuspegi errealista batetik eta norberaren gaitasun eta balioekin bat etorrira.

2.4 KONPETENTZIAK IKASLEEI EGOKITURIK ETA GUTXIENEZKO MAILAK

HAUR HEZKUNTZAKO MINIMOAK ADINKA

2 URTE

1. EREMUA: NORBERAREN EZAGUTZA ETA AUTONOMIA PERTSONALA

- Oinarrizko beharren aurrean laguntza eskatu keinu edo hitzen bidez (mukiak, ura, berokia jarri edo hartu...).
- Esfinterren kontrola (txikienak gutxienez prozesuarekin hasita).
- Agurtu (keinua edo hitzen bidez).

2. EREMUA: INGURUNEAREN EZAGUERA

- Eskaintzen den materialarekin esperimentatu.
- Materiala modu egokian erabili (ez bota gauzak gogor eta airetik, ez saiatu apurtzen...)
- Bizikidetasun arau minimoak errespetatu (koxka egin, jo, bultzatu...).

3. HIZKUNTZA: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA

- Eguneroko mezu laburrak ulertu eta bete (ekarri, batu, eraman,...).
- Eguneroko hiztegia erabiltzen saiatu edo errepikatu (egunon, etxera, ogia...).

3 URTE

1. EREMUA: NORBERAREN EZAGUTZA ETA AUTONOMIA PERTSONALA

- Berokia jarri eta kendu.
- Oinetakoak jarri eta kendu.
- Oinarrizko beharren aurrean laguntza eskatu hitzen bidez (mukiak, ura, txisa...).
- Komunera bakarrik joan.
- Zintz egin.
- Agurtu eta eskerrak eman.
- Korroan ondo eserita eta lasai egon.
- Emozio batzuk adierazten hasi: pozik, triste.
- Gorputz atal nagusiak identifikatu.
- Norberaren gorputz-mugimendu desberdinak kontrolatzen hasi: astiro ibili, bultzatu, gogor jo, saltoak bi hankekin...

2. EREMUA: INGURUNEAREN EZAGUERA

- 1, 2 eta 3 zenbakiak identifikatu eta modu praktikoa kopuruarekin erlazionatu (ad: "hartu bi gauzak).
- Ahozko zenbaketa 5a arte.
- Koloreak identifikatu: gorria, urdina, horia.
- Lehena-azkena.
- Barruan-kanpoan.
- Sailkapenak: koloreka (gorria, urdina, horia) eta tamainaka (handia-txikia).
- Segidak: ezaugarri bat (kolorea, forma edo tamaina).
- Handia-txikia.
- Asko-gutxi.
- Gehiago-gutxiago.
- Bizikidetasun arau batzuk errespetatu (ez jo, ez bultzatu, elkarrekin jolastu...).
- Arazoak konpontzerakoan lasai egoten saiatu eta laguntzarekin hitza erabiltzen hasi.
- Eskolako espazioak errespetatzen eta zaintzen hasi.

3. HIZKUNTZA: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA

- Bere izena identifikatu.
- Marrazkiak eta hizkuntz idatzia desberdindu.

- Oinarrizko beharrak ahoz adierazi.
- Eguneroko mezuak ulertu eta bete (atea itxi, norbaiten berokia hartu, zerbait bere lekura eraman...).
- Eguneroko hiztegia erabiltzen hasi.
- Teknika plastiko ezberdinekin esperimentatu: kolatu, urratu, puntzoiarekin zulatu, pintzelarekin margoztu...).
- Borobilean arreta mantendu eta parte hartu.
- Talde elkarriktarako arauak bete (txanda, entzun besteei, ez molestatu...).

4 URTE

1. EREMUA: NORBERAREN EZAGUTZA ETA AUTONOMIA PERTSONALA

- Oinarrizko beharrak barneratuta izan eta emozio batzuk adierazi: haserrea, tristura, poza.
- Gorputz atal nagusiak bereiztu.
- Eskailerak hankak txandatz igo eta jaitsi.
- Korroan ondo eserita egon (indioak bezala).
- Poliki-azkar joatea jakin.
- Aulkian jarrera egokiz eseri.

2. EREMUA: INGURUNEAREN EZAGUERA

- 1, 2, 3, 4 eta 5 zenbakiak identifikatu eta modu praktikoan kopuruarekin erlazionatu (hartu bost gauza).
- 1, 2 eta 3 ordinalak.
- Ahozko zenbaketa 10era arte.
- Lehena-azkena.
- Koloreak: gorria, urdina, horia, berdea, marroia, naranja, beltza eta zuria.
- Sailkapenak: koloreka, tamainaka (handia-txikia), formaka (triangelua, laukia, zirkulua)
- Segidak: ezaugarri bi (tamaina, kolorea, forma).
- Handia-txikia-ertaina.
- Asko-gutxi-ezer ez.
- Gehiago-gutxiago.
- Laburra/motza.
- Gainean-azpian.
- Aurrean-atzean.
- Goian-behean.
- Handiagoa-txikiagoa.
- Urtaroak bereiztu eta beren ezaugarriekin erlazionatu.
- Ingurumenaz jabetu.
- Ingurunea errespetatu eta zaintzeak duen garrantziaz jabetu.
- Bizikidetasun arauak errespetatu (ez jo, lan egiterakoan ez molestatu, ez bultzatu, elkarrekin jolastu...).
- Arazoak konpontzerakoan lasai egoten saiatu eta hitza erabiltzen hasi.
- Eskolako espazioak errespetatu eta zaindu.

3. HIZKUNTZA: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA

- Gelan egunero erabiltzen diren mezuak ulertu eta bete.
- Gelan lantzen diren ipuinak ulertu.
- Landutako hiztegia ulertu eta erabiltzen saiatu.
- Eguneroko ekintzak sekuentziatu.
- Bizipenak bere erara kontatu (asteburukoa, patioan gertatutakoa...).
- Borobilean arreta mantendu eta parte hartu.
- Olerkiak eta abestiak buruz ikasi.
- Talde elkarrizketarako arauak bete (txanda, entzun besteei, ez molestatu...).
- Forma idatziak eta beste adierazpen grafikoak bereiztu.
- Hitz batzuk askatasunez idatzi.
- Hitz idatzi desberdinen arteko antzekotasunez eta desberdintasunez jabetu.
- Gidatutako trazoak egin psicomotrizitatea hobetzeko: goitik behera, ezker-eskuin.
- Bere izena eta lagunak izenak identifikatu.
- Bere izena idatzi.
- Teknika plastiko desberdinekin modu egokian esperimentatu gero eta autonomia handiagorekin.
- Errealitatea islatzen duten marrazkiak egin.

5 URTE

1. EREMUA: NORBERAREN EZAGUTZA ETA AUTONOMIA PERTSONALA

- Gorputz atal nagusiak bereiztu.
- Zentzuak zertarako diren jakin eta dagokien organua ezagutu.
- Oinarrizko beharrak menderatu eta emozioak adierazi.
- Laguntza barik eskuak modu egokian garbitu.
- Botoiak askatu eta lotu (bai botoiak bai kremailera).
- Zapataren lokarria lotzen hasi.
- Agurtu eta eskerrak eman.
- Norberaren gorputz-mugimendu desberdinak kontrolatu.
- Eskailerak hankak txandutuz igo eta jaitsi.
- Aulkian jarrera egokiz eseri.
- Korroan ondo eserita egon (indioak bezala).

2. EREMUA: INGURUNEAREN EZAGUERA

- Hurbil-urrun.
- Atzo-gaur-bihar.
- Estua-zabala.
- Artean-erdian-ondoan.
- Hiru elementuko seriazioak egin.
- Koloreak bereiztu eta izendatu: gorria, oria, berdea, beltza, zuria, marroia, laranja, urdina.
- Izendatu eta marraztu: triangelua, laukia, lauki zuzena eta zirkulua.
- Otik 10 arteko zenbakiak identifikatu eta modu praktikoan kopuruarekin erlazionatu.
- Otik 10 arteko zifra bat emanik bilduma osatu.
- Zenbaki deskonposaketak eguneroko egoeretan erabili (ad: bost arkatx izateko hemendik bi hartuko ditut eta hortik beste hiru...).
- 1, 2, 3, 4 eta 5 ordinalak.
- ... baino gehiago.
- ... baino gutxiago.
- ... baino handiagoa.
- ... baino txikiagoa.
- Berdina.
- Urtaroak bereiztu eta beren ezaugarriekin erlazionatu.
- Bizikidetasun eta errespetuzko arauak erabili.
- Arazoak konpontzerakoan lasai egon eta hitza erabili.
- Eskolako espazioak errespetatu eta zaindu.

3. HIZKUNTZA: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA

- Gelan egunero erabiltzen diren mezuak eta hiztegia ulertu.
- Gelan lantzen diren ipuinak ulertu.
- Sekuentziak ordenatu.
- Landutako ipuin bat bere erara kontatu hari logikoa jarraituz.
- Borobilean arreta mantendu.
- Olerkiak eta abestiak buruz ikasi.
- Ideiak adierazi esaldi egituratuak erabiliz.
- Talde elkarriketarako arauak bete.
- Testu sinpleak (ipuinak, olerkiak, abestiak...) antzeztu.
- Forma idatziak eta beste adierazpen grafikoen artean bereiztu.
- Hitz batzuk askatasunez idatzi.
- Hitz idatzi desberdinen arteko antzekotasunez eta desberdintasunez jabetu.
- Gidatutako trazoak egin: goitik beherakoa, ezker- eskuinekoa.
- Fonemak bistaz ezagutu.

- Bere izena eta lagunen izenak ezagutu.
- Bere izena eta abizena idatzi.
- Teknika plastiko desberdinekin modu egokian esperimentatu.

2.5 IKASTETXEAREN ETAPEN ARTEKO KOORDINAZIO MEKANISMOAK

HH eta LH etapen arteko koordinazio mekanismoak:

Irakasleen arteko Koordinazioa:

- Ekainean edo Irailean HH-ko tutoreak eta lehenengo ziklokoak bilduko dira hainbat aspektu adosteko: errutinak, irakurketa-idazketa, espazioen antolaketa, matematika eta lehenengo mailako funtzionamendu osoa eta beste bilera bat burutuko dute kurtsoan zehar beharrezkoa ikusten baldin badute.
- Ekainaren bukaeran “ikaslearen txostena beteko dituzte irakasle guztiek, bertan ikasle bakoitzaren informazioa idatziz jasotzeko. Horretaz gain, ikastetxeko Gelako memoria beteko dute.
- Irailaren hasieran, 5 urteko gelako irakasleak eskolan bertan balego, LH 1.mailakoarekin bilduko da, taldearen informazioa ahoz pasatzeko.
- Aholkularia izango da HH etapatik LH etapara igarotzerakoan, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen berri zehatza emango duena.

Ikasleekin burutuko diren ekintzak:

- HH-ko 5 urteko umeak kurtso bukaeran LH-ko ikasgela ezagutzera joango dira. Bertan beraien kezkak, beldurrak, jakin-nahiak asetuko dira.
- Irailaren lehenengo egunean, ikasleen izandako azken tutoreak (edo ezagutzen duten irakasle batek) jasotzen ditu patioan, haien gela berrira laguntzeko.
- Irailaren lehenengo egunean Ostuño parkera txangoa egiten da ikasle eta irakasle berriak ezagutzeko eta aurreko ikasturtekoekin berrelkartzeko.
-

Gurasoekin burutuko diren ekintzak:

- Ikasturte hasieran egiten den gelako bileran lehenengo mailetako tutoreak gurasoek dauzkaten zalantzak argituko ditu: zein metodologia erabiliko den, irakurketa eta idazketaren inguruko prozesua...
- Kurtso bukaeran ekainaren 5 urteko irakasleak, haurrak zikloa nola bukatu duen kontatuko die eta ziklo berriarenganako hurbilketa egingo du.

LH eta DBH etapen arteko koordinazio mekanismoak:

Irakasleen arteko Koordinazioa:

Kurtso amaieran Institutuko Ikasketa burua eta aholkularia eskolako Ikasketa buruarekin eta aholkuarekin bilduko dira. Hor gelako informazio orokorra pasatuko zaie et aldi berean Hezkuntza bereziko

ikasleen ezaugarriak eta jarraipenari buruzko informazioa helaraziko zaie.

Kurtso amaieran 6.mailako tutorea eta eskolako ikasketa burua Institutuko irakasleekin bilduko dira. Bilera honetan ikasle bakoitzaren informazioa emango diete eta hurrengo ikasturterako zenbait funtzionamendurako aspektuak zehaztuko dira: taldeak antolatzeke irizpideak, euskararen erabilera, ikasteko ohiturak e.a.

Institututik DBH 1ean lehengo ebaluazioan lortutako emaitzak bidaliko dituzte eskolara.

Ikasleekin burutuko diren ekintzak:

- Maiatzean arratsalde batean Institutuko instalazioak ezagutzera joango dira ikasleak tutorearekin. Han DBHko 1.mailako ikasle batzuk harrera egingo diete. Institutuko irakasleek zalantzak argituko dizkiete.
- DBHaren inguruan ikasleek dituzten kezka, zalantzak eta galderak argitzeko erabiliko dira tutoretza saio batzuk.

Gurasoekin burutuko diren ekintzak:

- Ikasturte hasierako bileran pautak batzuk emango dira.
- Tutoreak Bakarkako bilerak egingo ditu gurasoekin ikaslearen inguruko informazioa emateko.

5. METODOLOGIA

HAUR HEZKUNTZA

2 URTE

Adin honetako helburuak lortzeko 2 urteko umeen ezaugarri eta betebeharretan oinarritutako metodologia erabiliko dugu. Zeintzuk dira ume hauen betebeharrak?

- Umeek asko jolastu eta esperimentatu behar dute
- Musika oso garrantzitsua da (entzun, abestu, soinuak eta keinuak egin, hitzak errepikatu...)

Ipuinak entzutea ere asko gustatzen zaie eta errepikapenekin hitzen esanahia ikasten dute.

- Hizkuntzari dagokionez oinarritzakoa da, adin honetako garapena ikusgarria izanda.
- Umeek helduen arreta eskatzen dute beraien lorpenen partaide izan daitezen. Konfiantza eta autonomia lortzen laguntzen die.

-Adin honetan umeek beti “nirea da” esaten dute eta askotan “ez” eta “nik bakarrik” erabiltzen dute. Horrek arazoak sortzen ditu.

- Adin honetan batzuetan elkar jolasten hasten dira, baina gehienetan umeak bakarrik jolasten du. Beste umeak onartzen joango da eta geroago laguntza hasiko da.

- Denboraren sentzua eguneroko errutinen bidez garatzen dira: jolasak, bazkaria, siesta...horregatik oso inportantea da errutinak mantentzea.

- Adin honetan espazioa ere oso inportantea da, hau da, referentzia argiak eta batutako espazioak behar ditu. Honek segurtasuna ematen die.

Horrela, jakinda 2 urteko ume batek hau behar duela, lanaren garapena behaketan, manipulazioan eta esperimentazio aktiboan oinarrituko dugu, giro lasai batean. Jokua ezinbestekoa izango da helduak, giroa eta bere lagunak erabiliz. Umeak orain asko jolasten badu, etorkizunean ikasteko nahia izango du. Eskolan garapen ona izateko orain jolasten utzi behar zaie .

3, 4 ETA 5 URTE

Urtxintxa metodoan (ELKAR) oinarrituko gara. Bertako zenbait material erabiliko ditugu, ipuinak, olerkiak, abestiak, ordenagailu programa...

Hala ere, eguneroko gaiekin zerikusia daukaten hainbat proiektu egingo ditugu kurtsoan zehar, Haur Hezkuntzako maila guztiak parte hartuz.

Haur Hezkuntzan erabiliko dugun metodologia hurrengo puntuetan oinarrituko da:

1.- ANIZTASUNAREN TRATAERA bermatuko dugu.

Haurrak ezberdinak dira, Aniztasunari erantzuteak haur bakoitzaren motibazioei, beharrei, interesei eta ezaguera-estiloari egokitutako erantzuna eskaintzean datza, bakoitzak garapen erritmo propioa daukalako.

2.- IKASKUNTZA ESANGURATSUAN OINARRITUKO GARA.

Haurrek modu esanguratsuan ikasteko aukera izan dezaten, haurraren bizitzan garrantzi handia eta zentzu afektiboa duten esperientziak eta jarduerak sustatuko ditugu. Hau da, haurrek gaiari buruz ezagutzen, sentitzen eta pentsatzen dutena izango da gure abiapuntu. Haurren interesen eta beharretara egokitutako egoerak aurkeztuko dizkiegu.

3. ONGIZATE, AFEKTU ETA ESTIMULU EREMUA SORTUKO DUGU.

Gure eginkizun garrantzitsuenetako bat konfiantzazko eta segurtasunezko giroa sortzea da, haurra giro horretan babestua eta onartua sentitzeko. Horrek aukera emango dio bere buruan konfiantza sortzen, bere ingurua ezagutzeak sortzen dizkion erronkei aurre egiten, eta baita ezagutza hori lortzeko tresnak eta estrategiak eskuratzen ere.

4. ELKARBIZITZA ZIURTATU.

Haur Hezkuntzako ikastetxeak haurrari garapenerako esperientzia-iturri ezin aberatsagoa ematen dio: beste haur batzuekin elkartzea. Eskolan sortzen diren harremanek, lankidetzak, gatazka txikiak eta berregokitzeak erraztu egiten dute haurren garapen intelektual, afektibo eta soziala. Prozesu horretan laguntzeko, era askotako taldekatzeak eskatzen dituzten jarduerak sustatuko ditugu: talde handiak, talde txikiak, binaka...

5. BALIOEN eta JARREREN hezkuntzarekin konprometitu.

6. EUSKARAren erabilera eta **EUSKAL KULTURA**ren ezagutza, indartu eta bultzatuko dugu, gure tradizio eta ohiturak transmitituz.

7. FAMILIA eta ESKOLAREN arteko elkarlana ezinbestekoa da biok baitaukagu helburu bera: **HAURRAREN ONGIZATEA.**

